

noaue

**Igandean, Tipi Tapa
gastronomikoa**

**Garraio zerbitzuen
murrizketen aurka
7.000 sinadura batu dira**

**Mugikortasun Plana
jendaurrean
aurkeztuko da**



Lortu dute

**Zubietarrek Lehen Hezkuntza osoa bertako eskolan
ikasteko aukera izango dute etorkizunean**

Laburbira

Euskarazko film laburren zirkuitua

Martxoak 4, Igandea
Sutegiko auditorioan, 19:30
DOAN



ILUNPETAN
Koldo Cordero



NIGHT SHIFT
Jorge Arce



TAZAN
Iñaki Etxebarria



AREKA
Aitor Galarza



HIGADURAK
Aitor Galarza



EJECUTOR
Javi Arce



KREBA
Javi Arce



ZULO
Iñaki Etxebarria

Herriz-herri ibiltari, euskarazko film labur berriak zaleei erakutsiz. Halaxe dihardu Laburbira, 15 urtez, mugimenduan: gure lurrotan zein Euskal Herriko kanpo, euskarazko zinegintzan sortzen ari diren doki txikiak zabalduz. Aurreko ere lan asko jaso ditugu eta haiei zortzi aukeratu ditugu. Zaleentzat entretenigarria izango den 77 minutuko emanaldia osotuz. Euskarazko zineaz gozatzeko, otsailaren 28tik martxoaren 28ra bitarte, Laburbira zirkuitua herriz-herri!

noaqa



Euzko Lehen Bideak



Iruin Sagardotegia

Etorri eta dastatu sagardo berriak

30 Urte baino gehiago Usurbildarrei
sagardo hobereak eskeintzen.

Iruin, beti zugandik gertu.

943.361.229

Petritza bidea 12, Zubieta

Kenia



943 373 613

IRTEERA MAIATZEAN
Noaak gidatutako talde bidaia.
Lasartetik irtenda.

Albisteak iruditan

Igande honetan, bakailaodun pintxo festa

Hurbilago Elkartearen eskutik, bazkalarretik bapo jan eta edateko aukera izango da berriz hilero. Bueltan baitator, tarteka igande goiz eta eguerdietako poteo ordua alaitu izan duen Tipi Tapa ekimena. Hilabete dezentetako etenaldiaren ostean, bakailaosa osagai nagusia izango duten pintxo goxo askoak sukaldatuko dituzte Kaxko bueltako sei tabernek, igande honetan, otsailaren 25ean; Aitzaga, Artzabal, Bordatxo, Guria, Txiriboga eta Txirrista tabernek hain zuzen.

Ohi bezala, zizka mizka eta edaria 2 eurotan dastatu ahalko da. Ez ahaztu, Tipi Tapa txartela eskuratu eta pintxoak dastatzen joan ahala, taberna guztietako zigiluak biltzeaz. Erronka betetzen baduzue, aipatu txartela egitasmo honetan parte hartzen duten edaritegiak ontzietako batean sartu eta pintxo festa amaitu arte itxaron. 150 euroko erosketa balea eta 20



Tipi Tapa ibilbide gastronomikoa herriko hainbat ostatutan egiten da. Irudia: Hurbilago Elkartea.

euroko bi bale zozketatuko dituzte hilaren 25ean, Tipi Tapa bukaeran.

Aurrerantzean, hilero

Aurreko urteen antzera, aurrerantzean ere hilero ospatuko da pintxo festa, Tipi

Tapa formatuan, eta tarteka, plazara ere irtengo dira tabernariak. Kale giroa suspertzeko azoka moduan antolatuko dute baita hitzordu hau, noizbehinka, iaz ezaguna egin zitzagun Bizi Kalea izeneko ekimenaren bidez. On egin!

Laburrean

Larunbat honetan, 1956an jaioetakoen afaria

Otsailaren 24an biltzeko hitzordua finkatu dute 1956an jaioetako usurbildarrek, Saizar jatetxean egingo duten afarian. Izen ematea aurrez bideratu, otsailaren 22a baino lehen, 943 362 555 (Mari Karmen) telefono zenbakira deituta.

1975eko kinto bazkarian izena emateko epea, ixtear

Martxoaren 10ean batuko dira, sagardotegian. Izena emateko epea otsailaren 23an amaituko da. Izena emateko deitu edo bestela mezua bidali whatsapp bidez edo mezulari zerbitzutik, zenbaki honetara: 608 045 479 (Igor).

Martxoaren 10ean, 1973ko kinto bazkaria

1973an jaioetakoen bazkaria sagardotegian egingo da, martxoaren 10ean. Izena emateko whatsapp edo mezua bidali: 615 756 893 / 665 731 465. "Animatu zaitezte, egun bikaina pasako dugu!". Apuntatzeko epea, martxoaren 3ra arte.

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzalde. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noqua.eus // www.noqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noqua.eus

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddy Galbete,
Ana Urdangarin, Maddy Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herria!



Aritz Gorriti

Txartel gorria

Arbitroak Gipuzkoako taldeen arteko futbol partida batean, jokalariei euskaraz aritzea debekatu die. Berak ukatu egin du halakorik, berari erdaraz hitz egitea baino ez ziela eskatu jokalariei.

Poztekoa, oraingo honetan, beste askotan ez bezala, gertaturikoak izan duen oihartzun eta erantzuna. Bai, halako bigarabekeriak salatu egin behar dira. Arbitro batek ezin du Idiazabalen norgehiagoka bat erdaraz epaitu. Hobekia esanda ez luke hala izan behar. Bistan denez, errealtatea bestelakoa da. Arbitro honek partida hau erdara hutsean epaitu dezake; zer

axola dio aurrean dituenak euskara hutsean bizi diren. Gipuzkoako federazioak kontratatu du arbitro hau, baina nonbait, bere lanean euskara jakitea, sarritan gertatu bezala, meritutzat joko zuten.

Meritua gurea, egunerokoan halakoak irentsi beharrean aurkitzen garelako. Horrela gaude Euskaraldiaren 2018an. Arbitroa harrituta, ulertu ezinik futbol taldeek eginiko salaketarekin. Eta azkenean, jokalaria ulerkorra izan behar, euskararekiko mespretxu argia erakutsi duenarekin.

Denok ulerkorra izan behar badugu, ulertuko al genuke, euskaraz dakien arbitro bat espainiar estatuko lurralde-

ren batera, Ingalaterrara edo AEB-tara joan, bertako hizkuntza ikasteko interesik agertu ez, eta jokalariei berarekin hitz egiterakoan euskara erabiltzea exijitzea? Kasuotan erantzuna argia da, inork ez du zalantzarik izaten. Euskararekin ordea, badirudi halako egoerak kudeatzea konplexu edo ezinezko bihurtzen dela beti. Ezin eskatu aurrekoari euskaraz jakitea arazoak saihesteko, ezin exijitu inor ez asaldatzeko, ezin salatu inor ez mintzeko. Nahiz horretarako eskubide osoa izan.

Ez da gutxiagorako. Arbitro honi nola utzi diote Gipuzkoan euskara jakin gabe lan egiten? Kontratazio horretan zein izan dira baliatu di-

tuzten hizkuntza irizpideak? Esango nuke, txartel gorria atera digula epaile honek, baina ez futbol jokalariei soilik, guztioi. Txartel gorria atera digu bai, beste behin, nola gauden, agerian utzi baitu. Arazoa ez da epaile hau. Beste behin, euskararen ezagutza oraindik meritua gisa, langile baten kontratazioan "plus" gisa ulertzen duen jarduteko modu batena baizik. Euskararen ezagutza meritua izateari utzi eta Euskal Herrian lan egin edo bizitzeko ezinbestekoa izan behar duela barneratzen dugun egunean aurrerapauso handia emango delakoan nago.

Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

Igoera txikia, 2018ko lehen langabezia datuetan

Estatuko Enplegu Zerbitzuak kaleratu dituen azken datuen arabera, 258 langabetu zenbatu zituzten urtarrian Usurbilen. Abenduan baino 6 langabetu gehiago.

Igoera txiki hau Gipuzkoa

mailan ere eman da (33.982 langabetu urtarrian, abenduan baino 10 lagun gehiago).

Buruntzaldean aldiz kontrakoa, 49 langabetu gutxiago zenbatu zituzten joan den hi-

labetean, 3.317 lagun guztira.

Generoaren ikuspegitik, aldaketarik ez. Emakumezko langabetu gehiago izaten segitzen du Usurbilek; urtarrian 146 emakumezko eta 112 gizonezko langabetu.

Aldiz, emakumezkoak baino (200) gizonezko gehiago (243) kontratatu ziren urte hasieran. Kontratazio ia denak aldi baterako hitzartu ziren; erregistratu ziren 443 kontratutik 410.

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: martxoak 2. Idatzia ekartzeko azken eguna: otsailak 26.

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

txirriStra
7ABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Udarregi Ikastolak lan poltsa bat osatuko du

Haur Eskolan, Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan lan egiteko interesa duenak Udarregi Ikastolak egin duen lan poltsa deialdian parte hartzeko aukera du, martxoaren 2ra arte.

Horretarako, sartu udarregi.eus atariko "Lan-poltsa" atalean. Hautatu ze ziklotan lan egin nahi zenukeen. "Dagokion ataleko inprimakia bete, eskatzen den dokumentazioa igo", hortxe egin beharrekoa. Beharrezko argibide guztiak helbide horretan jaso daitezke.



Argibideak udarregi.eus orrian topatuko dituzue. Argazkia: Udarregi ikastola.

Beterri Buruntzako hoteletan kontratazioak sustatzeko ekimena

Beterri Buruntza eskualdeko diru-laguntzak emateko deialdi publikoa 2018ko otsailaren 2an argitaratu zen GAO-n. Diru-laguntza horien onuradunak, enpresak, profesionalak edo erakundeak izango dira. Baldintza batzuk bete behar dira, besteak beste, langabezian dauden pertsonak kontratatatu behar dituzte, lanaldi osorako.

Bete beharreko baldintzak

- Beterri-Buruntza udaletako langabetuak izango dira (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil).
- Cebanc-ek emango duen prestakuntza atala egoki gaitzea, hain zuzen ere, "ostatuetan solairuetako oinarritzko lanak egitea", 300 ordutako profesionaltasun ziurtagiria.

Kontratazioaren ezaugarriak

- 2018ko martxoaren 21etik apirilaren 1era bitarte egiten

diren kontratazioak.

- Gutxienez 6 hilabeterako.
- Edozein kontratazio modalitate, baina ez dira izango trebakuntza eta ikastun kontratuak.
- Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean lanaldi osoz.

Diru-laguntzaren kopuruak

8.000 euro gehienez. Jaso beharreko laguntzaren azken zenbatekoa ez da kontratatutako soldata kostuen eta Gizarte Segurantzako kostuen %100 baino gehiago izango.

Eskaerak aurkezteko epea

- 2018ko apirilaren 30 arte.
- Non: Andoaingo Udalaren Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria Saileko Erregistroan: La Salle etorbidea, 6. Urigain Etxea 20140 Andoain.
- Telefonoa: 943 30 42 21

'Hazilan', enpresei eta gazteei zuzendutako eskaintza

Langabetuen artean gazte kualifikatuak, unibertsitate tituludunak edo goi mailako ikasketak dituztenei zuzendua dago Hazilan programa.

Izena ematea, ixtear

Hasiera data: Otsailaren 26a. Izen emateko epea otsailaren 21ean amaituko da.

Informazio gehiago:

Programan parte hartu nahi duten enpresek edota gazte guztiek Beterri Buruntzako garapen gunearen egoitzan lor dezakete informazio gehiago: Urigain Etxea. La Salle etorbidea, 6 20140 Andoain

www.hazilan.eus
943 30 42 21
hazilan@andoain.eus

Diru laguntzak eskatzeko garaia da

Martxoaren 12ra arte zabalik dago 2018rako egitasmoak bideratu nahi duten eragile nahiz norbanakoentzako diru-laguntzak eskatzeko epea. Zazpi diru-laguntza lerro daude aukeran:

- Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko diru-laguntza deialdia (laguntza lerro berria).
- Gizarte zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntza deialdia.
- Igogailuak instalatzeko diru-laguntza deialdia.
- Nekazaritza-abeltzaintza arloko egitasmoak laguntzeko diru-laguntza deialdia.
- Ingurumen arloko egitasmoak laguntzeko diru-laguntza deialdia.
- Kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza deialdia.
- Kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza deialdia.

Informazio gehiago: usurbil.eus

'Txertatu Merkatuan' deialdian izena

emateko epea, ixtear

Beterri-Buruntza eskualdeko udalek 'Txertatu Merkatuan' prestakuntza programaren edizio berri bat iragarri dute. Eskaintza hau 16 eta 29 urte arteko gazteei zuzendua dago eta lan mundurako sarbidea erraztea du xede. Aurten, hauxe izango da eskainiko den formazioa: Kutxazain eta apal-betetzai-learen prestakuntza.

- Martxoan hasiko da eta ekainera arte iraungo du.
- Izen-ematea: otsailaren 23 arte.
- Non: Urigain Etxea. La Salle Etorbidea, 6 20140 Andoain.
- Orduetgia: 9:00-15:00.
- 943 30 42 21
- txertatumerkatuan@andoain.eus

Turismo ereduaz hausnartzeko bi saio antolatu ditu Udalak

Usurbilgo Udalak bultzada eman nahi dio turismoari. Baina turismo ereduaz hausnartu ostean. Gai honen inguruan gogoeta egiteko, Udalak bi bilera deitu ditu datorren asterako.

Hitzorduotan, landua duen proposamen bat aurkeztu eta herritar zein eragileekin partekatu nahi du, bertaratzen direnen ekarpenak biltzearekin batera. Hemen duzue turismo ereduaz hausnartzeko Udalak deitu dituen saioen hitzorduak:

■ Otsailak 28 asteazkena, 10:00. Turismoari lotutako zerbitzuak eskaini edo eremu honetan diharduten eragile pribatuekin bilera Potxoenean.

■ Martxoak 1 osteguna, 18:00. Kultur eragile eta herritarrekin bilera Potxoenean.

Tokiko ekonomian oinarritua

Turismo eredu lasaia, herria ezagutzeko esperientzia pausatua bultzatu nahi dituzte,



Lehen bilera otsailaren 28rako antolatu dute. Turismoari lotutako eragileekin batuko dira Potxoenean.

herritar eta bisitarien arteko interakzioa sustatuko duen eredu. Tokiko ekonomia, arlo soziala eta espazioa, herria bera, hiru elementuon arteko oreka bilatuko duen egitasmoa bideratu nahi dute.

Bere txikian, eskaintza aberatsa duen herria

Udalak argi du; Usurbilek hamaika nortasun ezaugarri ditu munduari erakusteko; azken

hamarkadetan euskararekin eta euskal kulturarekin izan duen lotura nabarmena, balore paisajistikoak, sagar, sagasti eta sagardoaren kultura, angulena... Gertu ditugun hiriburu eta kostaldetik ezberdinduko duen eskaintza du udalerririk honen, “gure txikitik eskaintza aberatsa” duela dio Udalak eta balore hauei guztiei lotutako esperientzia turistikoak eskaini nahi dituzte.

Martxoaren 3tik aurrera, bus-taxi zerbitzua hilerri berrira

Usurbilgo Udalak kaleratu berri duen “Udalberri” aldizkariaren 3. zenbakian iragarri duenez, bus-taxi zerbitzua jarriko du martxan martxoaren 3tik aurrera, hilabetero lehen larunbatean, hilerri berrirako joan etorria egiteko; eguerdiko 12:00etan igo eta 12:30ean jaisteko. “Erabiltzaile asko egongo balira, aukera handitzeko prest dago Udalak, eta bi bidaia jarriko lituzke”. Bigarren joan etorri hori 12:30-13:00 artean egiteko aukera eskainiko luke Udalak.



Erabiltzaile asko egongo balira, bidaia maiztasuna handitu egingo litzateke.

Mugikortasun Plana liburuxka batean jaso da

Hilabete luzez Udalak eta herritarrek elkarlanean landu duten Usurbilgo espazio publikoaren berrantolaketa eta mugikortasun plan berriaren emaitza liburuxka batean jaso da. Egundotan etxeetan banatu du Udalak eta ohartarazi dutenez, jendaurrean aurkeztuko dute otsailaren 28an. 18:00etan, Sutegin.

Etorkizunean, lanketa horri esker, 55 aktuzio bideratzea aurreikusten du Udalak. Finen, mugikortasun plan berriak espazio publikoaren eta ibilbideen beste antolaketa bat proposatzen du. Liburuxka horretan herritarrek Kale Irekiak parte-hartze prozesuan lehen-



Mugikortasun Plana jendaurrean aurkeztuko dute otsailaren 28an.

tasunezkoztat jo dituztenetako batzuk baino ez dira azaltzen. Ekintza horiek ez dira denak batera egingo. Plangintza bat da, eta bidea zehazten dute”, diote Udaletik.

Prozesu honetan zehar 60

herritarrek eta 196 haurrek parte hartu dute, auzoka, kultur etxean nahiz ikastolan eginiko saioetan. Haiekin guztiekin, “Kale Irekiak” prozesuaren baitan egin diren saioetako ekarpenekin “Mugikortasun Plana

osatu dute arkitekto eta teknikariek. Plan horren edukia, laburbilduta, liburuxka batean jaso dira herritar guztiei, modu argian eta ulerterrazean, erakusteko asmoz”.

Aipatu moduan, liburuxka bat argitaratzeaz gain, herritarrek eta Udalak eginiko lanketa emaitza jendaurrean aurkeztuko da otsailaren 28an egingo den ekitaldian. Egun berean, mugikortasun planeko edukia ikusgai jarriko dituen erakusketak zabalduko dute Sutegin martxoaren 16ra arte.

Gai honi buruzko informazio zabala usurbil.eus helbidean jaso dezakezue.

7.000 sinadura eta 5.000 alegaziotik gora, autobus zerbitzuen murrizketaren aurka

Azken asteotan gaia apaldu dela dirudien arren, autobus zerbitzuetako gidariak eta erabiltzaile askok kezkatu jarraitzen dute. Kexuak kexu, Gipuzkoako Foru Aldundiak murrizketekin aurrera jarraitu nahi duela uste dute. Eta horregatik, mobilizazio berriak iragarri dituzte. Otsailaren 27an, martxa bat egingo dute Donostian eta ekitaldiaren amaieran 7.000 sinadura erregistratuko dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza nagusian.



Murrizketarik ez! Herri Plataforman, autobus gidariak eta erabiltzaileak batu dira.

“Batzuei ahaztu egiten zaie zerbitzu publiko batez ari gara eta beraz, gizartearen interes orokorra interes ekonomikoaren gainetik kokatu behar dela”. NOAA!ra igorri duen idatzian kezkatuta jarraitzen dute Murrizketarik Ez! Herri Plataformakoek.

Erabiltzaileak, gidariak edota pentsiodunak dira plataformak honetako kideak. “Diputazioaren jarrera inposatzaile honen aurrean, murrizketen

HERRI PLATAFORMA

“Foru Aldundiari eskaera luzatu nahi diogu negoziazio mahai bat ireki dezan”

ondorioak jasango ditugunok asko dugu esateko”. Euren iritzia kontuan hartzea eskatzen dute. Foru Aldundia moral bikoitzarekin jokatzeko ari dela diote plataformako kideek: “ja-

rraitzen dute zerbitzu publikoa hobetzeaz hitz egiten, onura ekonomikoen izenean horrelako murrizketak planteatzen dituzten bitartean”.

Foru Aldundiko Mugikortasun Saileko murrizketak aplikatzen badira, gizarte sektore ahulenak kaltetuko dituztela dio herri plataformak: “langabetuak, emakumeak, langileak, atzerritarrak eta ikasleak”.

Inposizioaren aurrean, “eskaera luzatu nahi diogu negoziazio mahai bat ireki dezan, erabaki publikoetan herritarren parte hartzea ezinbestekoa dela ulertzen baitugu”. Bien bitartean, mobilizazioekin jarraituko dute. Datorren astean, hilak 27, martxa bat iragarri dute. Amaieran, batutako 7.000 sinadurak erregistratuko dituzte Foru Aldundiaren egoitza nagusian.

Elkarretaratzea egingo dute otsailaren 27an, Donostian

Murrizketarik ez! Herri Plataformak hilabeteotan batu dituen 7.000 sinadurak Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztuko ditu. “Autobus erabiltzaileok eta langileok

deialdi irekia egiten diegu herritarrei, otsailaren 27an Donostiako Pio Baroja plazatik Gipuzkoa Plazaraino joango den martxan parte hartzera”. Era honetan, euren eskaerak

Trafiko Delegaritzan (Pio Baroja plazan aurkitzen da) eta Foru Aldundiaren egoitza nagusian (Gipuzkoa Plazan) entzungo dira.

Otsailaren 27an asteartea,

eguerdiko 11:00etan abiatuko da martxa eta, amaieran, prentsurreko bat eskainiko dute. Segidan, 7.000 sinadurak erregistratuko dituzte Diputazioaren egoitzan.

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

ANORAGA TXIKI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Martxoaren 8ko greba eguna eta deialdi gehiago

Emakumeen Egunari begirako hainbat ekimen deitu dira aurtengoan. Tartean, arrakasta handia izan ohi duen Artzabalgo bertso-afaria. Txartelak bertan dituzue salgai. Autodefentsa feminista ikastaroa ere antolatu da. Baita, emakumezko ekin-tzaileen solasaldia Kabienen.

Aurtengoan halere, deialdi nagusia Martxoaren 8rako eguna dago. Emakumeak planto egitera, 24 orduko greba egitera deitzen ditu Euskal Herriko Mugimendu Feministak, "indarkeria matxistari, esploatazioari eta diskriminazioari nahikoa dela esateko". Mundu mailako greba eguna izango da. Euskal gehiengo sindikalak edota eragile politikoen artean, EHBilduk ere bat egin du greba egun honekin. Xehetasun gehiago, hurrengo astekarian.

Martxoaren 8ari begirako deialdiak

Martxoak 4, igandea

■ 10:30 XXIX. Lilatoia Donostiako Bulebarretik. Izen ematea otsailaren 23ra arte kirolprobak.com atarian.

■ Informazio gehiago: lilaton.es

■ Antolatzailea: Atletico San Sebastian.

Martxoak 8, osteguna

■ Emakumeek planto egiteko eguna, greba egun feminista. Mobilizazioak 12:00etan eta 20:00etan herri eta hiriburuetan. Lan uzteak lantoki eta eskoletan.



Martxoaren 9an bertso afaria egingo dute Artzabalen. Miren Artetxe (argazkian), Eli Pagola eta Amaia Agirre arituko dira kantari. Argazkia: bertsolari.eus

Deitzailea: Euskal Herriko Mugimendu Feminista.

Informazio gehiago:

Twitter: @m8EuskalHerria

Facebook: M8EuskalHerria

m8grebafeminista@gmail.com

grebafeminista.wordpress.com

■ 18:00 Emakume ekintzaileen solasaldia Kabienen. Sarrera libre. Antolatzailea: Kabiene elkarlan gunea.

Martxoak 9, ostirala

■ 21:00 Bertso-afaria Artzabalen.

■ Bertsolariak: Amaia Agirre, Miren Artetxe, Eli Pagola. Gai jartzailea: Ainhoa Agirreazaldegia.

■ Txartelak: aurrez salgai Artzabalen. Txartel kopurua, mugatua.

■ Antolatzaileak: Bota Punttuba bertso eskola, Matrakak Talde Feminista eta Usurbilgo Udala.

Martxoak 16-17

Autodefentsa feminista ikastaroa Oiardo Kiroldegian. Bideratzailea: Emagin Elkartea. Ordutegia:

■ Martxoak 16 ostirala, 16:00-20:00.

■ Martxoak 17 larunbata, 09:30-13:30.

■ Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Pentsio duinen alde protestatzeko deia

Pentsiodunen elkarteek osteguneko (otsailak 22) hiriburuetan deitu dituzten manifestazioekin bat egin du Usurbilgo Gure Pakea jubilatuen elkarteak. Herriko hainbat txokotan jarri dituzten karteletan, Donostian egingo den mobilizazioan parte hartzeko gonbita luzatu dute. Biltzeko hitzordua ostegun goizeko 11:15ean finkatu dute, Donostiako Amara plaza hotelaren parean. Ordu laurden beranduago abiatzekoa da, hiriburuko kaleak zeharkatuko dituen manifestazioa.

Euskal gehiengo sindikalak manifestazio hauetan parte



Pentsiodunen elkarteek Donostian egingo duten manifestazioarekin bat egin du Gure Pakea jubilatuen elkarteak. Artxiboko irudia.

hartzera deitu du baita, Espainiako Gobernuak iragarri moduan pentsioak %0,25ean eguneratzearen aurka protesta egitera, eta Europako Karta Sozialak zehaztu bezala, gutxienik 1.080 euroko pentsioak izateko eskatzera.

Euskal Herrirako Babes eta Gizarte Segurantzako Sistema propioa ere galdegingo da. Hitz gutxitan, pentsio publiko duinak bermatzearen alde, eta oro har, jubilatuen eskubideen aldeko mobilizazioak izango dira honakoak.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL



LH osoa eskaintzea lortu dute Zubietako eskolan, hamarkada luze bateko ahaleginen ondoren

Hamarkada luze bateko ahaleginak merezi-tako emaitza izan du azkenean; zubietarrek Lehen Hezkuntza osoa bertako eskolan ikasteko aukera izango dute etorkizunean. Orain arte, bigarren mailara arteko eskaintza zuten. Ikasturte honetan abiatu dute estreinakoz 3. maila. Ikasturteko progresiboki joango dira ezartzen LH osoa. 2020ko irailetik aurrera, 6. maila abiatzea erekin batera, ziklo osoa ezarria izango dute Zubietako Eskolan.

Garaipen argia, hamarkada luze bateko borrokaren ostean. 7 bat ikasleekin egon eta eskola ixtekin gertu egon ostean, 2000. hamarkada hasieran eraiki ziren etxebizitzekin, eta ondorioz, Zubietaren handitzeak ikasle kopuruan gorakada ekarri zuen. “40-45 haur izatera igaro zen”, Zubietako Eskolako guraso elkartetik NOAUA!ri oroitarazi diotenez.

Eusko Legebiltzarreraino

Ikasleen aita amek, eskolako langileekin batera gogotik lan egin behar izan dute ordutik. Ikasle kopuruan izandako gorakadak, bistan denez, orduko eraikina txiki utzi baitzuen. Eta gurasoak ate joka hasi ziren, Eusko Legebiltzarreraino heldu arte. Jaurilaritzak hasie-



Guraso elkartetik esker oneko agertu dira bereziki bidelagun izan dituzten Zubietako Herri Batzarrarekin, baita Donostia eta Usurbilgo udalekin ere.

EZARPENA, PROGRESIOA

“2020ko irailetik aurrera, LH ziklo osoa ezarria izango dute Zubietako Eskolan”

ra batean, Zubietako Eskolan Haur Hezkuntza mantendu eta Lehen Hezkuntza ezabatzeke asmoa omen zuen. Gurasoon ahaleginak ordea ekarri zuen, Legebiltzarrak Zubietako eskola handitzeari eta LHri buruzko legez besteko proposamen bat onartzea 2010ean. “LH osoa modu progresiboan ezartzea onartu zen 2010-11 ikasturteetik aurrera. Eta ikastetxeko gela kopurua handitu eta jangela bat ezartzea”, gogorarazi digute guraso elkartetik.

Barrakoietan

Bistan denez, legez onarturikoa gauzatzen hasteko 7 urte igaro behar izan dute. Bidean izerdi ugari bota behar izan dute, eta ahal zuten moduan moldatu. Eskola txiki geratu zen unetik eta espazio faltari konponbideren bat aurkitu artean, aurrefabrikaturiko “barrakoietan” eman behar izan zituzten klaseak hainbat urtez. “Komunitateak beretik asko jarri zuen: guraso taldeak, Zubietako Herri Batzarrak... Usurbilgo Udalak bere gain hartu zuen guneon bi urteko hornikuntza eta mantenua”, adierazi digute.

Usurbilgo udal langileei esker, barrakoietako bizimodua leuntzeko urte osorako aireztapen sistema bat jarri zuten. Halere, garai hartako oroitzen politak dituzte; “inaugurazio festa bat

ere egin genuen txaletetan”.

Eskola handitu eta gero

2013an heldu zen konponbiderako udal eta Jaurilaritzaren arteko hitzarmena, eskola handitzeko. Eraikin berria, 2015eko otsailean inauguratu zuten. “Eskola oso polita, egokia, goxoa geratu da”, diote guraso elkartetik.

Eskola handitu zuten bai, baina aurreko hamarkadatik zuten erronka eskuarte zuten oraindik, gauzatzeke. “Obren ondoren, barealdia izan zen”, diote guraso elkartetik. Baina eskolatik eginiko deialdiari erantzunez, berriz ere LH osoa ezartzeko lanari ekitea erabaki zuten. Hezkuntza Ordezkaritzara jo eta ezezkoa jaso zuten. “Ez zuten bideragarri ikusten, ez zuten gure eskolan gehiago inbertitu nahi”. Ezezkoaren aurrean ordea, beraiek dioten moduan, ez ziren kokildu. Txosten bat landu eta Usurbil zein Donostiako udaletara jo zuten. Erabateko babesas jaso zuten. Usurbilgo zenbait udal ordezkariren laguntzaz, Jaurilaritzaraino heldu ziren berriz. Legebiltzarreko hezkuntza batzordean landu zuten gaia, “berriz ere talde guztien babesas jaso genuen, gure harridurarako, gobernuan zegoenak ere gure alde egin zuten”.

“Ezezkoen aurrean ez dugu etsi behar”

Iazko udan heldu zen azkenean erantzuna. “Ikasturtea ezer ez genekielako bukatu genuen. San Joanetako festa, badaezpada 2. mailakoak agurtuz ospatu genuen”. Uztailean jaso zuten ordea baieztapena, ikasleok eta atzetik datozenek 6. mailara arte Zubietan ikasi ahalko dutela etorkizunean. Ordutik, progresiboki LH osoa ezartzen ari dira

ikasturteko. 3. maila estreinatu dute aurtengoan. “Hirugarren mailakoak joango dira bidea irekitzen. Aitzindariak izango dira”, gogorarazi digu eskolako zuzendari Rosa San Romanek. Inoiz eman gabe zituzten maila berriotarako prestaketa, formazio eta lanketa betean da eskola. “Erronka interesgarria da”, dio San Romanek. Baina eskola txi-

kiak berezkoa duen nortasunari eta orain arteko proiektu pedagogikoari eutsita ekin nahi diote etapa berri honi.

“Guraso piloa inplikatu da”

Guraso elkartetik esker oneko agertu dira bereziki, bidelagun izan dituzten Zubietako Herri Batzarrarekin, baita Donostia eta Usurbilgo udalekin ere. Eta

gurasoen arteko elkarlana nabarmendu dute. “Balio handiko jendeak parte hartu du hamarkada honetan. Guraso piloa inplikatu da”. Oso prozesu luzea izan den arren, jorratu duten bideak erakutsi die, “lan egiteak merezi duela, ideiak garbi ditugunean gure ideien alde borrokatzeak merezi duela eta ezezkoen aurrean ez dugula etsi behar”.

Bazkide izateak saria dakar


Heldu zaizkigu 2017ko NOAUA! guztiak bildu (683-723 artekoak) eta koadernatu ahal izateko tapak eta aurkibideak. NOAUA!ko egoitzan eskuratu ditzakezue. NOAUA!ko bazkideok doan, gainerakoek 3 euro azalaren eta beste 1,20 euro aurkibidearen truke. Iazko astekari guztien koadernatzea Lizardi edo Laurok liburu dendatan egin ahalko duzue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu beharko dute bazkideek eta bazkide ez direnek. Koadernotzeko aleren bat falta bazaizue, NOAUA!ren egoitzara etorri eta eskatu.

Bazkideen arteko zozketak

NOAUA!ko bazkide izateak oparia dakar! Galdetu bestela Angel Matxain Maiz herritarrari. Otsailaren 9an Zubietako Iruin sagardotegian 2 lagunentzako otordua zozketatu genuen NOAUA! K.E.-ko bazkideon artean. Angeli egokitu zaio saria. Zorionak! Adi, hurrengoazu izan zaitezke. Otsailaren 23an, Santueneko Aialde Berri sagardotegian 2 lagunentzako otordua zozketatuko dugu bazkideon artean. Zorte on!

Nola egin naiteke bazkide?

Oraindik NOAUA!ko bazkidetza egin gabe baduzu,



Bazkideen arteko zozketan, Angel Matxaini bi lagunentzako otordua tokatu zaio Zubietako Iruin sagardotegian.

TAPA ETA AURKIBIDEA

“2017ko NOAUA! guztiak koadernatzeko garaia da. Gure egoitzan eskura daude tapa eta aurkibidea”

NOAUA!ra etorri eta segituan tramitatuko dizugu. Zozke-

tetan hainbat sari irabazteko aukera izateaz gain, NOAUA!k antolaturiko ekitaldien sarreteretan beherapenak izango dituzu, eta garrantzitsuenak, proiektu honetako erabakietan parte hartzeko aukera ere bai. Argibide gehiagorako: elkartea@noaua.eus 943 360 321

Martxoaren 13an, NOAUA! Kultur Elkartearen Batzar Nagusia

Hilaren 13an bazkideok hartuko dugu hitza. NOAUA! Kultur Elkarteko bazkideen urteko batzar nagusia izango dugu Potxoenean. Iazko balantzeaz eta urte berriko egitasmoak hartuko ditugu ahotan, egon daitezkeen ekarpenak bildu eta zalan-tzak argitzearekin batera.

Errigoraren kanpaina berria hastear da

Nafarroa hegoaldeko tokiko produktuen ekoizpena eta euskalgintza bultzatzen duen Errigora ekimena, kanpaina berri baten atarian da. Kontserbak eta oliba olioia Euskal Herriko etxeetara zabaltzeko egitasmoa abiatzera doaz. Ohi bezala, NOAUA! Kultur Elkartek bat egingo du deialdiarekin. Martxoaren 6tik 20ra bideratu beharko dira eskaerak NOAUA!n. Hurrengo astekarian xehetasun gehiago.

Martxoaren 4an, Laburbira-ren proiektzioa Sutegin

Azken aldian ekoitzi diren euskarazko film laburrez gozatu ahalko dugu, martxoaren 4rako (19:30ean, Sutegin) antolatu dugun Laburbiraren proiektzioan.

Otsaila amaieratik, hilabetez herriz herri biran ibiliko den ekimenaren 15. edizioa, NOAUA!ren eskutik helduko

da Usurbila.

“Ilunpetan”, “Night Shift”, “Higadurak”, “Ejecutor”, “Tazan”, “Areka”, “Kreba” eta “Zulo”, horratx aurtengoan ikusi ahal izango ditugun ikus-entzunezko lanen izenburuak.

Informazio gehiago:

topagunea.eus/laburbira



Loli Astoreka, ‘Kreba’ laburmetraiako irudi batean.

Ttipika ezagutarazteko dantzan

Ttipika Dantza Gidatuen taldeak promoziorako bideoa grabatu zuen otsailaren 18an Zumetaren mural parean, aurrez egin zuten deialdiari erantzunez, bertaratu ziren usurbildar dantzarien laguntzaz. Taldeko musikariek jarritako erritmora dantza saio ezberdinak plazaratu zituzten.

Bideoa prest dutenean sare-
ratzeko asmoa dute. Ikus-en-
tzunezko lan hau bere burua
ezagutzera emateko baliatuko
du Ttipikak.

Boskotea da orain

Taldea boskote honek osatzen du orain: Aitor Agirrek (dantza emanaldiko gidaria), Maitane Arteagak (abeslaria eta pandero jolea), Manex Torrealdaik (trikitixa eta kaxa flamenkoa),



Igandean grabatu zuten bideoklipa. Aitor Agirre falta da argazkian.

Aitor Huizik (biolina) eta Josu Furundarenak (kitarra).

'Haziak' diskoan, bi kanta

Euskal Herriko Trikitixa Elkar-
teak 'Haziak' izeneko diskoa
plazaratu zuen Durangoko

Azokan. 2017an egin zuen maketa lehiaketaren emaitza da diskoa. 8 talderen proposamenak izan ziren aukeratuak, tartean, Ttipikaren bi abesti hauek: Ezinaren eginaz eta Iraltz arina.

Nataliren lehen bideoklipa

"Iparrorratzik gabe", hala izena du Natali talde usurbildarraren estreinako abestiak. Taldea, Natali Izagirre eta Ixak Arruti usurbildarrek osatzen dute. Abestia duela hilabete igo zuten sarera. Bideoklipa ere sortu dute kanta honetarako eta jada Youtuben duzue ikusgai. Andoingo Garate estudioetan grabatu zuten abestia. Makalekoiztetxeari esker grabatu eta editatu dute bideoklipa. Lan ederra!



Natali Izagirrek eta Ixak Arrutik osatzen dute Natali taldea.

Tapak eta aurkibideak prest

Agur esan diogu 2017 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2017ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditza-
kezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

2017



683-723 zenbakia

Gazte Akelarrerako sarrerak salgai

Ernai eta Aitzina gazte antolakundeak bosgarrenez udaberri parterako ekimena prestatzen dabiltza; aurten, “Sorginkerian dugu independentzia” aldarripean, martxoaren 30etik apirilaren 1era ospatuko den Gazte Akelarrea Oiartzunen.

“Herriz herri eta auzoz auzo Euskal Herriko txoko guztietako borroken topagune bilakatuko dugu hiru egunez Oiartzun. Eguneroko su txikiz pizten dugu independentziarako bidea, sorginkeriaz, errebeldiaz eta konpromisoarekin. Hor baitago garaipenerako gakoa”, iragarri dutenez.

Aldez aurretik, merkeago

Sarrerak dagoeneko salgai jarri dituzte. Usurbilen Aitzagan es-



Martxoaren 30etik apirilaren 1era ospatuko da Gazte Akelarrea Oiartzunen. Sarrerak Aitzagan topatuko dituzte.

kuratu ahalko dira:

■ Martxoaren 30eko sarrera 12 eurotan.

■ Martxoaren 31rako sarrera 18 eurotan.

■ Bi egunetarako bonoa, 30 eurotan (otsailaren 28a baino lehen hamarrekoko taldeetan ero-

siz gero 28 eurotan).

Sarreron truke, akanpalekua, furgonetentzako aparkalekua, dutxa zerbitzua edota gauetako eskaintzaz gozatu ahalko da.

Informazio gehiago:

gazteakelarrea.info

XXIV. Soinurbil jaialdia martxoaren 10etik 20ra ospatuko da

Oparo dator eskaintza alde-tik Zumarte Musika Eskolak antolatutako 24. Soinurbil musika astea. Aurtengoan, martxoaren 10etik 20ra ospatuko da. Musika ardatz hartuta, denetarikoko formatu anitzetako ekitaldiak plaza-ratuko dituzte.

Xehetasun gehiago hurrengo astekarian.



Formatu anitzeko ekitaldiak antolatuko dituzte.

BAZKIDEEN TXOKOA

Otsailaren 23an ZOZKETATUKO dugu:

AIALDE-BERRI SAGARDOTEGIAN

2 LAGUNENTZAKO afari edo bazkaria

NOAUAREKIN TXOTXI!

noaúa! euskararen aterpe

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / ekartea@noaueus

Hitzaldi eta elkartasun bira

2013ko azaroan Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak (GHK), Gipuzkoako Foru Aldundiak eta enpresek erdietsitako akordio historikoari esker, erraustegiko lanak geratu izanagatik irailean epaitu egingo dituzte garai hartako GHK-ko lehen-dakari Ainhoa Intxaurrendieta eta ingurumeneko foru diputatu Iñaki Errazkin.

“Kasu benetan larria da, Euskal Herri osoan jendea ohartarazi nahi dugu jokoan dagoenaz”, adierazi du Gipuzkoa Zutik mugimenduak. Erraustegiko lanak geratzeagatik epaitu nahi dituzte, “guztiontzat ekonomikoki kaltegarria eta Donostialdeko milaka herritarren osasunarentzat arrisku garbia den erraustegia gelditzeagatik”. Ondasun pertsonaletatik 100 milioi eurotik gora eskatzen zaizkie.

Testuinguru honetan, “Angula ustelak, zer gertatzen da Euskal Erregimenari aurre egiten badiozu?” hitzaldi bira



Irailean, Iñaki Errazkin ingurumeneko foru diputatu izandakoa eta Ainhoa Intxaurrendieta GHK-ko lehen-dakari izandakoa epaituko dituzte.

HITZALDIA USURBILEN

**“Martxoaren 7an,
Ainhoa Intxaurrendietak
hitzaldia eskainiko
du Sutegin”**

antolatu du Gipuzkoa Zutik mugimenduak hilabeotaroko herriz herri. Hitzaldi bira horren baitan bi geldialdi egingo dituzte inguruotan:

■ Martxoak 7, asteazkena

19:00etan Usurbilgo Sutegiko auditorioan.

■ Zubietako Kaxkapen otsailaren 22rako iragarria zuten hitzaldia, baina atzeratu egin dute. Beste egun batean egitekoak dira.

“Ustelkeriari lotutako hamaika gertakizun ezagutuko ditugu”

Solasaldiok herritarrak informatu, gogoeta eta eztabaida sustatzea dute helburu, “Euskal Erregimenak nola funtzionatzen duen” ezagutzeko aukera izango da.

Datozen hitzaldiotan, “ustelkeriari lotutako hamaika gertakizun ezagutuko ditugu: Lapurtutako ordenagailuaren eta suntsitutako dokumentazioaren kasuak, bankuekin eginiko tratu absurdua, enpresen txostenak idatzi zituzten funtzionarioen kasua, beharrezkoa ez den gastu publikoa justifikatzeko gaimentsionatutako datuak... Diru publikoa betikoen esku pribatueta pasatzeko mafiaren jokamoldea da. Erabat onartezina demokrazia batean”, Gipuzkoa Zutik mugimendutik nabarmentzen dutenez.

Epaiketa honekin, Gipuzkoa Zutik mugimendutik diotenez, bidaltzen ari diren mezua zera da, “ezin dela erregimenaren eredu zalantzan jarri. Beste eredu bat nahi duten herritarrak hauteskundeak irabaztea lortzen badute ere, eta milaka milioiko zorra dakarten proiektuak alferrikakoak direla frogatzen badute ere, negozio horiek ezin dira ukitu. Bestela zureak egin du”.

Larunbat honetan, erraustegia geratzeko manifestazioa Donostian

Zubietako erraustegia geratzea eskatu eta hondakinen bilketa eraginkorra Gipuzkoa osora hedatzea eskatzeko manifestazioa deitu du Erraustetaren Aurkako Mugimenduak, larunbat honetarako, otsailak 24. Arratsaldeko 17:30ean abiatuko da Donostiako Gipuzkoa plazatik, “erraustegia gelditu, birziklapena sustatu!” aldarripean. Mobilizazioko leloak egoki jaso bezala, Zubietako erraustegiko lanak geratzea eskatuko da, baina baita hondakinen bilketa eraginkortzea Gipuzkoa osoan. Hondakinen %80 gaika biltzera heldu eta geratzen den zati bir-



Arratsaldeko 17:30ean abiatuko da Donostiako Gipuzkoa plazatik.

ziklaezinari erraustegia ez den bestelako irtenbide bat eman. Ildo horretatik, hondakinak ego-ki kudeatzen dituzten herrita-

rraren ahalegin eredugarria nabarmendu nahi da, eta “nagikerian ezkututzen direnei deiadarra egin nahi diegu”.

Abiatzeko adina laguntza jaso du Hitzartuk

Esku hartze prozesua abiatzeko gutxienez 10.000 euro behar zituzten. Antolatu zuten diru bilketa kanpaina amaitzeaz zela gaitz zuten gutxieneko langa hori.

Kontu zenbakiotan diru ekarpenak egiteko epeak zabalik segitzen du oraindik. “Hurrengo urratsak eman bitartean, jarraituko dugu finantziarioa handitzen prozesu zabala izan dadin”, ohartarazi dute:

Laboral Kutxa: ES05 3035 0140 33 1400031124

Kutxabank: ES83 2095 5060 10 9117692165

Inauteri Festa Gaztelekuan

Gaztelekuan Inauteri Egunara karaokearekin kantuz blai pasa genuen.

Aurreko egunetan abestien aukeraketan, Wazemank!-eko bertsio barregarriekin hasi ginen eta, karaoke egunean, gaur egungo reality-ek nerabeen artean modan jarri dituzten 80. hamarkadako hit-ak abesten amaitu genuen.

Gaztelekuko diskoteka argiek eta feria dekorazioak festa giroa jarri zuten eta nerabeen kanta proposamenekin osatu zen. Esne Beltza, Gatibu, Kaotiko, En Tol Sarmiento, Kortatu eta abar... Euskal abeslariak, Fan-goria, Morat eta Alex eta Cristinarekin nahastu ziren eta "Pais tropical" brasildar kantarekin harrituta utzi gintuzten. Guraso talde alai (Euskal Ferrero Rocher mozorrotuta) baten bisita izan genuen. Amaitzeko bingoa egin genuen, nerabe batek etxetik ekarritako jolasarekin.



Usurbilgo Gaztelekua.

Karaokean abesten igaro zuten Inauteri Festa. Argazkiak: Gaztelekua.

Bihurri ludotekako kuota ordaintzeko azken egunak

2018ko kuota ordaintzeko epea otsailaren 28an amaituko da. Bazkide berriek 30 euro, jada bazkide direnek 10 euro. Ordainketa kontu zenbaki honetan egin behar da: ES3230080259103545905527 (Rural Kutxa).

Bestetik, ludoteka utziko duten gurasoei oharra: "ludotekako bazkide izateari uzten dioten familiei giltza itzuli dezatela eskatzen diegu".

Magia ikuskizuna

Txan magoaren emanaldia iragarri dute. Martxoaren 23an ostirala arituko da Bihurri ludotekan, arratsaldeko 17:00etan.



Martxoaren 4an, "Axel heroia txikia" filma eskainiko dute.

Haurrentzako zinea Sutegin

Usurbilgo Udalak Ziortza Gazte Elkartearekin elkarlanean negu parterako antolaturiko zine zikloko hurrengo saioan, "Axel heroia txikia" ikusteko aukera izango da Sutegin, martxoaren 4an 17:00etan. Sarrerak 3 eurotan eskuratu ahalko dira egunean bertan, kultur etxean.

Sagarrondotik

Sagardora ikastaroa

Alkartasuna Kooperatibak irailera arte antolaturiko ikastaro praktikoaren baitan, bi saio iragarri dituzte martxorako:

■ Martxoak 3: "Sagastien neguko kimaketa, gaixotasunak eta tratamenduak", Aitor Etxeandiarekin.

■ Martxoak 17: "Fruitu arbo-len udaberriko edo zotzeko txertaketa", Josu Osarekin.

■ Antolatzaileak: Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba, Sagardoaren Unibertsitatea, Sagarki, Bizi Sagardoa eta Usurbilgo Udalak.

Argibide gehiagorako:

943 361 114
alkartasuna@usurbil.com
alkartasuna.eus

KzGuneako hurrengo ikastaroak

Otsailaren 28ra arte goizez zabalduko dute Usurbilgo KzGunea, 09:00-13:00 artean. Martxoaren 1etik aurrera arratsalde, 16:00-20:00 artean. Honatx KzGunea datozen ikastaroak:

■ Otsailak 23-28, 09:00-11:00 "LibreOffice Writer. Zure testu dokumentuak sortu".

■ Martxoak 1-14, 16:00-18:00 "Oinarritzako Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoa bidaltzen ikasi".

■ Martxoak 15-26, 16:00-18:00 "Google aplikazioak zure kudeaketa pertsonalerako".

Informazio gehiago:

Kale Nagusia, 37
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

LH5 eta LH6ko ikasleentzako saioa Ziortzan

Ikasturte hasieran iragarri zuten bezala, hilean behin batuko dira LH 5 eta LH6ko ikasleekin. Hurrengo saioa: martxoak 9 ostirala, 19:00etatik 20:00etara bitartean. Ziortzako kideek aditzera eman dutenez, egun horretan 18:55ean elkartuko dira Ziortza Gazte Elkartearen egoitza parean.

Martxoaren 2tik apirilaren 6ra, Aste Santuko txokoak Aginagan

Aginagako Aste Santuko txokoetan izen emateko epeak otsailaren 16tik martxoaren 2ra iraungo du. Txokoen iraupena: martxoaren 26tik apirilaren 6ra.

Informazio gehiago:

aginaga@eskolatxikiak.org

Gipuzkoako Biraren hirugarrena

Andatza M.K.T.-k Gipuzkoari bira eman asmo dio hurrengo hila-beteetan etapaka. Urtarrilean eta otsailean, Usurbil-Zumaia eta Zumaia-Saturran arteko bidea osatu ostean, Saturran-etik Eibarrera oinez joateko deialdia egin dute martxoaren 11rako. Izen ematea zabalik dago.



Martxoaren 11n osatuko dute 3. etapa baina aldeztu aurretik eman behar da izena.

Martxoak 11, igandea

■ Abiatzeko hitzordua: 07:00etan Oiardo Kiroldegitik.

■ Joan etorria: autobusez.

■ Ibilbidea: Gipuzkoako Birako 3. etapa, 22 km.

■ Izen ematea: 30 euroko ordainketa egin, martxoaren 7a baino lehen Andatza M.K.T.-ren kontu zenbakiotako bategian:

Rural Kutxa: 30080259163005430321

Kutxabank: 20955069071068489805

■ Oharrak:

-Plaza mugatuak.

-Prezioaren barne, autobuseko joan etorria eta bazkaria, Eibarko Eskarne jatetxean.

-Andatza M.K.T.-k antolatutako irteeretan parte hartzeko derri-gorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea. "Federatu gabe dagoenari tramitea egin-

go diogu, hala nahi badu. Horretarako gure web orrian aurkitzen da egin beharrekia, edo gurekin jarri harremanetan andatza@hotmail.com helbidetan".

■ Antolatzailea: Andatza M.K.T.

Informazio gehiago:
andatza.com

Hondarribia eta San Juan nagusitu ziren

Traineru denboraldia uda partean jokatzen da. Entrenamenduak ordea, abenduan hasi zituzten. Oriaren Jaitsiera hila-beteotan egindako lana neurtzeko proba egokia izan ohi da. Larunbatean jokatu zen eta partehartzea sekulakoa izan zen. 92 ontzi eta 1.840 arraunlari aritu ziren lehian.

Emakumezkoetan, San Juan izan zen garaile 14:26:84ko denbora eginez. Orio izan zen bigarren eta hirugarren Donostia Arraun Lagunakeko emaku-



Oriaren XXIV. Jaitsieran, San Juan taldea nagusitu zen emakumezkoetan. Argazkia: Karkara.

me koadrila.

Gizonezkoetan, Hondarribia A izan zen garaile, 19:22:56 denborarekin. Zierbena izan zen bigarren segundu bakarre-

ra eta Orio hirugarren, bost segundura.

Beteranoetan, Getaria izan zen nagusi. Chapela bigarren, Ares hirugarren.

Eskubaloitako partidak Oiardo Kiroldegian

Otsailak 24, larunbata

■ 11:45 Infantil neskek,

Gipuzkoa: Udarregi A-Elgoibar

■ 13:00 Infantil mutilak,

Gipuzkoa: Udarregi A-Bera Bera

■ 15:45 Jubenil mutilak, Euskal

Liga: Usurbil K.E.-Zarautz

■ 17:30 Kadete mutilak,

Territoriala: Usurbil K.E.-Egia

Futbol partidak Haranen

Otsailak 24, larunbata

■ 11:30 Infantil mutilak:

Usurbil F.T.-Ostadar S.K.T. A

■ 16:00 Erregional mutilak:

Usurbil F.T.-Dunboa Eguzki CD

Pilota partidak

Aginagako frontoian

Udaberri Txapelketa

Otsailak 23 ostirala, 20:00

■ Eskuz binaka jubenilak 1.maila
Pagazpe 2 / Oiarpe 1

■ Eskuz binaka jubenilak 1.maila
Pagazpe 1 / Tolosa Aurrera 3



Aurreko astean aipatu genuen bezala, Euskal Herriko Custom pala txapelketan bigarren izan ziren Miriam Arrillaga eta Miren Goikoe-txea.

ARRANDEGIA
PELLO
ORDUTegi BERRIA:
ASTELEHENETIK-LARUNBATERA
9:00-13:30
ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUNA
17:00-19:30
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94

Otar-Goxo
Elkargiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA
SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!
ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA
943 36 10 79

ETXEBIZITZA

Salgai

90 m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m²- terraza, 8 m² trastelekua eta bertan 33 m²-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Atikoa salgai garajea eta trastelekuarekin. Tel. 665 720 913

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101.

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharra bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Alokairuan

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negoio-lokal bat alokatzen da. Kafetegia edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekabixi 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

Kanping karroa salgai. Wolder tuareg markakoa. Muntaiak azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro² lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurra. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daitezke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zerbitzari bat behar dugu aste-burutarako Artzabal jatetxean eta udaran ordu gehiago. Tarte-ka asteburuak jai egiteko aukerarekin. Garrantzitsua euskara jakitea eta esperientzia izatea. artzabaljatetxea@gmail.com

Usurbilen goizez haurrak zaintzeko pertsona euskaldun bat behar da. Erreferentziak eskertuko dira. Deitu 636853322 edo 615751488 telefonoetara.

Zerbitzari bat behar da, karta-rekin lan egiteko. Larunbat eta igande eguerditan, lan egin nahi baduzu: 680 483 164

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziekin. Tel. 632 576 258

Pertsona helduak zaintzen lan egingo lukeen mutil bat naiz. Larunbat eta igandetan, esperientzia daukat. Tel. 632 793 747

Mutil arduratsua baserriko lane-tarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herri-itar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zaindiko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo aste-burutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarako egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo aste-burutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabiltza. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645



Urte askotarako, Janitz!!

Otsailaren 25ean, 11 urte!

Muxutxo goxoak familikoan partez. Maite zaitugu.



Zorionak Enaitz!

Otsailaren 27an 2 urte beteko dituzu eta ospatzeko irrikitan gaude. Segi orain arte bezain alai eta bixkor! Zure etxeak.

Heriotzak

Joxe Azurmendi Aizpuru, 80 urterekin hil zen otsailaren 13an Aginagan



OHARRA: 2018ko martxoaren 2an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: otsailaren 26an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gauez zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantxatzeko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oportetean umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenetik ostiralerara. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edoizen modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zaindiko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldaren ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen

naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenaretzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldan lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel. 632 587 450.

BESTELAKOAK

Klase partikularrak emateko pertsona baten bila gabiltza Aginagan. Batxilerra lehenengo maila. Matematika eta kimika. 690 367 952.

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabiltza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Irailaren 13an kaketua txiki bat (ninf) galdu da. Txuria eta eskubiko hankan eraztun urdin bat duena. Ikusi baduzu deitu. Tel. 606 060 322.

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortadorea salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. Telefono zenbakia: 637 974 994

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontaktua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralerara: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epategia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneke Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 22 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 23 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 24 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 25 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astelehena 26 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 27 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 28 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Otsailak 22 - Martxoak 04

Osteguna 01 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 02 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 03 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 04 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda otsaila

23 ostirala

■ **Elkarretaratzea** euskal presoen eta haien senideen eskubideen alde. 20:00etan Mikel Laboa plazan.

24 larunbata

■ **Kantu-jira.** 12:30-14:00. Mikel Laboa plaza-tik abiatuko dira.

■ **Erraustegiaren aurkako manifestazioa.** 17:30ean Donostiako Gipuzkoa plazatik abiatuta.

25 igandea

■ **Tipi Tapa.** Bakailao pintxo berezien ibilbide gastronomikoa Aitzaga, Artzabal, Bordatxo, Guria, Txiriboga eta Txirristra tabernetan. Orduategia: 15:00ak arte. Antolatzailea: Hurbilago.

Datorren astelehenean, Jai Batzordearen bilera berri bat

Usurbilgo Jai Batzordea otsailaren 26an astelehena batuko da berriro. Potxoenean, arratsaldeko 18:00etan. Ohi bezala, bertaratu nahi duen eragile eta norbanako ororentzat bilera irekia izango da. Ekintza berririk bada bertan aztertuko dute, eta jaietako aurrekontuen lanketari ere ekingo diote.

Aurrekoan, jaien egutegia finkatu zuten: ekainaren 28tik uztailaren 2ra arte. Aurtengoan, 70.000 euro bideratuko dira festetara. Hurrengo bileretan, ekitaldi bakoitzaren gastuaren zenbatekoa adieraziko da. Zer antolatu eta antolatu nahi den horrek zenbateko kostua duen agerian utzi nahi da modu horretan.

Usurbilgo Jai Batzordean bildutako era-



Bilera Potxoenean egingo da, arratsaldeko 18:00etan.

gile eta norbanakoen asmoei forma eman nahi zaie. Herriitik herriarentzat sortutako jaiak izan daitezten.

Jai Batzordearen bilera

■ Otsailak 26 astelehena.

■ 18:00etan Potxoenean.

Larunbat honetan, kantu-jira eguerdiz

Otsaila mugitu askoa izaten ari da Kantu Taldearentzat. Hirugarren saioa izango dute larunbat honetan. Eguerdiz irtengo dira, eguerdiko 12:30ean Mikel Laboa plazatik.

Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan

Euskal presoen eta haien senideen eskubideen alde Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deitutako elkarretaratzea ostiral honetan egingo da, 20:00etatik aurrera Mikel Laboa plazan.

Datozenak

'Sagarrondotik sagardora' ikastaroa

Aurreko larunbatean abiatu zen ikastaroa. Hurrengo hitzordua, martxoaren 3an. Aitor Etxeandiarekin batera, "Sagastien neguko kimaketa, gaixotasunak eta tratamenduak" gaia landuko dute Potxoenean.

Izena emateko: 943 361 114
alkartasuna@usurbil.com

Erakusketa Artzabalen

Margolari nafarraren margoak ikusgai dituzue Artzabalen. Egileak, "Euskal Herrian zehar ibilbidea" izena jarri dio erakusketari. Euskal Herriko natur gu-
neak omentzea du helburu.

Odol ematea

Usurbilgo odol emaleen elkarteak finkatutako urteko bigarren saioa, martxoaren 5ean, 18:00-20:30 artean anbulatorioan. Gipuzkoako odol emaleen bilgunetik gure ekarpena egitera animatzen gaituzte. "Zure ekintzaren isla zara, izan emale!"

Informazio gehiago:

gotatanta.eus

Facebook: Gotatanta

Twitter: @gotatanta

ELORZA

OBRAK ETA
ERREFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182



Zubiaurrenea 8
943 370 008

URDAIRA

Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA
SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, **HERNANI**

LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak 6ra
EGUERTITANERE IREKITA
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**



Iruin Sagardotegia

Etorri eta dastatu sagardo berriak

30 Urte baino gehiago Usurbildarrei
sagardo hobereak eskeintzen

Iruin, beti zugandik gertu.

943.361.229

Petritza bidea 12, Zubietza

ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • **943 55 69 81**



Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

943 37 39 95

SAGARDOTEGIA
aginaga

Hotela **

URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIK!
ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA

943 36 67 10

Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com



Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

%100 bertako sagarra

Tel: 943 365 031

Santuenea



KALE

IREKIAK

Usurbil

Espazio Publikoaren Berrantolaketa



Espazio publikoaren
antolamendu berria

aurkezteko ekitaldia eta erakusketaren irekiera

Otsailaren 28an, 18:00etan, Sutegin
(ondoren, luntx txiki bat eskainiko da)